

RIKAR ROYO 'RIKI' -DJa (DISKO JARTZAILEA)-

“DJ onak 10garren minuturako antzeman behar du taberna dantzari nola jarri”

■ Musika elektronikoa (elektronikaren bidez sortua, produzitua) jartzen du tabernetan ■ “Astakeria” iruditzen zaio bere musika ‘bakalao’arekin nahastea ■ Bere iritziz “jende klase guztiak” dantza dezake; musika hau entzuteagatik “inor ez da espainolagoa edo euskaldunagoa”.

RIKI, Lou, Amaia, Aritz, Talo..., Hernaniko DJak dira (disc jockey, disko jartzaileak). Musika ‘pintxatzeko’ estilo diferenteak dituzte, baina denek egiten dute lan bera: taberna girotu.

Rikar Royo ‘Riki’ 35 urteko hernaniarra da. Denean ibilitakoa da: aitaren baserrian, administraritzan, andamiotan, hoteletako garbitzaile..., azken lau urteak Londresen pasa ditu. Betitik gustatu izan zaio musika eta 85eko hamarkadan hasi zen Rocka ez zen beste zerbait entzuten. Ordutik joan da deskubritzen musika elektronikoa; mundu guztian izugarri indarrarekin sartu dena, “nahiz eta Euskal Herrian bide asko daukan egiteko”.

■ **KRONIKA:** Esplikatu al zeniguke zein den zuen lana?

RIKI: Nik tabernetan, gauez, musika jartzen egiten det lan. Bi plater (disco erreproduktore) izaten ditut aurrean eta disko mordo bat inguruan. Plater hauek berezi prestatuta daude: aurrera eta atzera mugitu daitezke; azkarrago eta mantxoago. Musika aparatuak, berriz, aldi berean martxan ari diren bi diskoren soinuak bat eginda bota ditzake altabozetatik.

Nik erritmo eta estilo diferenteetako diskoak izaten ditut. Bi disko jartzen ditut plater banatan. Aldi berean martxan jarri eta soinu eta erritmo bi diskoak konpajinatzen saiatzen naiz. Ondo egin ezker efektu polita lortuko dezu eta jendea dantzari jarriko dezu.

■ **Zer estiloko musika da?**

Nik diskoak nahasten ditut. Disko horien musika, elektronikoa da, ordenadore bidez sortutakoa, produkzio lan bat daukana. Dena ordenadorean egin daiteke, baina, normalean, beste musika bat hartzen da oinarrian: salsa, latino... horren arabera musika elektronikoak tonu diferenteak hartzen ditu: latino, afrikanoa...

Hori da oinarria, baina, hortik aurrera pentsa zenbat joku eman lezak.

■ **Ez al zarete ari pixkanaka musika taldeei lekua kentzen?**

Ez dakit, benetan. Jendeak aukeratu behar du hori. Dena dela, talde batzuk ari dira kontzertuetan DJak sartzen. Berak ari diren bitartean DJak nahasketak egiten ditu.

■ **Zuen ingurua askotan lotu izan dute drogarekin. Nola ikusten duzu?**

Ez det esango drogarekin ez dagoenik, baina, ez beste giroetan baino gehiago. Bakoi-tzak ikasi beharko du nola kontrolatu.

■ **Hernanin ba al dago era honetako mugimendurik?**

Bai, hasia dago, eta asko poztzen naiz. Musikak ez gaitu euskaldunago edo erdaldunago egingo. Ezta beharrik ere!

ESANDA BEZALA

■ “House-a, Teknoa, Break Beat-a eta Funk-arekin egiten ditut nahasketak, aldi behin bestelako zerbait sartuaz: Drumm & bass-a...”

■ “Musika hau gauza asko-gatik maite det, adibidez, klase guztietako jendea berdintzen duelako: kultura guztiak, status guztiak, gizarte klase guztiak...”

■ “DJren zailtasuna da, musika jartzen hasi eta 10 minutura antzematea zein musikarekin jarri taberna dantzari”.

■ “Gure musika drogarekin lotzen da. Ez det esango ez dagoenik, baina, gaur egun droga entono guztietan dago. Gurean bezela beste giroetan, kontrolatzea norberaren esku gelditzen da”.

■ “Musika estilo hau asko ari da eboluzionatzen. Euskal Herriak ez daki zenbat gauza ari den galtzen”.

■ “Musikari eskatzen diodana da arima izatea eta nere gorputza mugituaraztea. Dantza da gustatzen zaitena”.



Binilozko diskoekin ‘pintxatzen’ du Rikik. CDrik ez du erabiltzen.

■ “Londresetik Euskal Herri-
ra ekarri nauena da bihotza,
burua eta sabela. Hemen be-
zela ez da inon bizi eta ez da
inon jaten”.

■ “Nere musika ezin da *baka-
lao*arekin nahastu; neretzat
bakalao musika *basura* bat da.
Hala ere, errespetatzen det
jendeari gustatzea”.

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urte berri on
Urbietara Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10



Poltsak, lepokoak, lurrinak...

**ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON
HERNANIAR GUZTIOI**

URDIN Osagarri Denda
Montebideo kalea 1
(EPO eta atletismo pista artean)
- HERNANI -

**JANTZIDENDA
LOHER**

Emakume
Gizon eta haurrentzat



**Gabon jai zoriontsuak opa
dizkizuegu!**

Elkano 1, (Eliza atzekaldean)
Tel.943 555 003 - HERNANI



GasHernani

GasHernani
Zure etxerako
energia naturala
GAS NATURALA
Eguberri zoriontsuak opa
dizkizuegu!

Gudarien Enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20120 HERNANI



SANTA BARBARA

PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

Peugeot 306 SV	TD 3 urte	1.675.000 pta
Peugeot 206	Diesela	550.000 pta
Peugeot 205	Gasolina	580.000 pta
Peugeot 309	Gasolina	190.000 pta
Ford Scort	16 balbula	550.000 pta
Citroen AX	Diesela	390.000 pta
VW Polo	Gasolina	300.000 pta
Renault Express	Diesela	650.000 pta
Land Rover	Diesela	175.000 pta

eta beste hainbat, 100.000 eta 200.000 pta artean...

■ IGERIKETA -VII. GABONETAKO SARIA-

Hamar medaila hernaniarrentzat

■ 230 igerilari inguruk hartu zuen parte, infantil, kadete, jubenil eta nagusietan ■ Aurtengo irabazle orokorrak Amaia Amundarain nesketan eta Mikel Novella mutiletan.



Hiru saritu medailekin atzo.

VII. GABONETAKO saria atzo jokatu zen kiroldegian. Berrehundik gora gaztek hartu zuten parte, eta sariak ere asko izan ziren. Hernanin 10 medaila gelditu ziren, kategoria eta modalitate ezberdinetan. Antolatzaileek Kronikari esan diotenez “opor hauetan gazteek kirola egiten gozatzeari nahi degu” eta atzokoan lortu zutelakoan zeuden “primerako giroa egon baita”. **Aurtengo sari nagusiak**
Nesketan: 1) Amaia Amundarain (Igarondo taldekoa); 2) Maialen Nobellas (Igarondo); 3) Ane Etxart (Tolosa). Mutiletan: Mikel Novella (Easo); Ibai Pagola (Igarondo); Iñaki Guridi (Aloñamendi). □

‘Andrekale 35’ dendak saria jaso du: ‘eskaparate onenari’

■ Gipuzkoako ‘Komertzio Kamarak’ ematen du, Gabonetan ■ Denera 301 dendak hartu dute parte ■ Joan den urtean ere berak irabazi zuten.



Igor Baiona eta Joxan Landaribar, ‘Andrekale 35’ dendan.

GIPUZKOAKO Komertzio Kamarak, urtero egiten du eskaparate lehiaketa. Lau gai izaten dira: **bat**) etxe apainketa; **bi**) janariak; **hiru**) norberaren ekipamentua eta **lau**) bestelakoak. *Andrekale 35* etxe dekorazioan presentatu da eta 301 dendetatik beren eskaparateak irabazi du.

Joan den urtean ere berak irabazi zuten; ordukoan, *beste-lakoak* sailean. Berak esan digutenez, “estetika baloratzen dute edozeren gainetik. Imajinazioa behar da. Aurtengoa, adibidez, 5.000 pta kosta zaigu. Ez dago gehiagoren beharrik”.

Hurrengo urtean berriz presentatuko dira. □

🔪 JASOTA BEZALA

Jubilatu Egoitzako lehendakariak Errege Magoei bidalitako karta

Errege Mago maiteok: Zuek hainbesteko indarra eta ahalmena badaukazue bai, eta, zuengana noa eskean. Joan den aspaldian gazte koadrila ausart bat badabilkigu etengabe kaltea egin eta kaltea egin dabilena, bai guri eta baita jubilatutako etxe-

ari ere. Azkenengoa Eguberri hauetan izan da: eraman dituzte Jesusen irudia, Hernaniko bandera, pareteko urrezko erlojua, koadro bat, boltsaka karta....

Errege maiteok, gure eskaria da zeuek eginale egitea gazte horien jokabidea aldatu eta arazoa konpontzeko. Eskatzen dizuegu gazte horiei kargu hartu diezaiozutela, eta

hala ere, jarreraz aldatuaraztea posible ez bada, gure autoritateengana jo dezazutela. Politikoei eta Udaltzaingoak jarri dezatela jarri beharreko arreta eta egin dezatela egin beharrekoa, pixka bat zoriontsuago izaten uzten ez digun arazo grabe hori konpontzeko.

Goio Irazusta

■ HITZ BITAN

✓ FUTBOLA

Hernani amesten hasi da atzo 4-1 irabazita. Erraz irabazi zioten atzo Hernaniko futbol jokalariek Urolari, baina, gol gehiago sartzeko aukera ere izan zuten. Jon Loran ez zegoen guztiz konforme baina gustora bai “gehiegi relajatu gara gaur. Etxeko ratxa txarra hautsi dugu, eta lasaitasuna emango digu garaipen honek”. Hernaniarrak atera dira sailkapeneko azpiko zulotik eta gora begira jarri ere bai.

✓ BERTSOLATA

Bertsopelota gaur eta Urte zaharretako erronda bihar. Aurtengo Bertsolata ari da bereak ematen. Azken bi ekitaldiak gaur eta bihar izango dira. Gaur bertsopelota, 12:00etan Tilosetan eta bihar Urte zaharretako erronda kalez kale. 17:00etan irtengo da udaletxeko arkupetatik. *Ohitura Zaharrak* abesbatzak hernaniar guztiei luzatu die gonbitea errondan irtetzeko.

✓ JUBILATU ETXEA

Jubilatu etxeak salaketa sartu du udaltzaingoan zenbait lapurreta direla-eta. Hilaren 26 eta 27an Jubilatuen egoitzara sartu eta paretako ordularia, Jubilatutako bandera eta jaiotzako Jesus haurtxoa lapurtu zituzten, Jubilatuetako arduradunek Kronikari jakinarazi diotenez. Esan dute azken hilabeteetan horrelako asko gertatu direla, baina, erremediorik ez dela jartzen.

✓ PLATER TIRAKETA

San Silbestre sariketa gaur Santa Barbaran. Txantxangorri elkarteak antolatuta, tiraldia izango da gaur Santa Barbaran. Elkarteko bazkide eta gonbidatuentzat da. Izen ematea 11:00etatik 12:00etara. Prezioa: 1.000 pta.

✓ MENDIRIZ MENDI

Bederatzi orduko ibilia urtarrilaren 13an. Mendiriz Mendi elkarteak antolatu du hurrengo mendi irteera. Tornos (920 metro), Zalama (1336 metro), Koliza (879 metro) eta Pandozales (283 metro) mendiak igoko dituzte. Izen ematea urtarrilaren 10a baino lehen egin behar da Mendiriz Mendiko bulegoan, astelehen, ostegun edo ostiralean 20:00etatik 21:00etara. Prezioak: bazkideentzat 8 euro; bazkide ez direnentzat 11 euro.

✓ PELOTA

Hernani eta Añorgaren arteko desafioa gaur kiroldegian. Pelota elkarteak antolatu du eta arratsaldeko 16:30etan hasiko da.

✓ MUSIKA

Hernaniko Bandak kontzertua emango du gaur Sandiusterrin. Manuel Sagarna izango da zuzendari eta hamar abesti emango dituzte. Eguerdiko 12:00etan.

✓ MEZA TELEBISTAN

Hernaniko meza gaur Euskal Telebistan. Atzo ilunabarrean Hernaniko parrokian grabatutako meza botako dute gaur Euskal Telebistan. Goizeko 10:30etan. □

Tuberia bat lehertuta urik gabe egon ziren atzo zenbait auzo

■ ATZO goizaldera uraren tuberi bat lehertu zen. Horren ondorioz Portu, Elizatxo eta Osinagako auzoak urik gabe egon ziren. Udaletik Jesus Rebollo zinegotziak adierazi digunez, konponketa oso zaila gertatu da, tuberiaren ondoan tentsio altuko (13:000 w) kable bat dagoelako. Horregatik atzeratu zen konponketa arratsaldeko 17:00ak arte. Udalak “barkamena” eskatu nahi die kalteak izan diren hernaniar guztiei. □

**ANTZIOLA**
Eguneroko ogirik onena!
ANTZIOLA AUZOA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

Skoda Octavia. Bizi guztia


OCTAVIA eskura 1.950.000 ptatik.
aurrera* (11.719,74 euro*)
*Penintsula eta Balearetako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 1.4 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.
MENABI
Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943 40 42 43


DELICATESSEN
since 1983
Produktu Bereziak
Nagusia 17 • 20120 HERNANI
☎ 943 55 21 27
POSTA ELEKTRONIKOA: *xarobe@euskalnet.net*

BADATZ ERREGEAK, BADATZ


ZATOZ TXIMELETARA ZURE OPARIAK AUKERATZERA
Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI

ARALAR TABERNA
Zorionak eta urte berri on denorik!